



PRENTSA OHARRA

ARRIGORRIAGAK "HARRI GORRIEN MEZUA", PADURAKO BATAILATIK HASI ETA EUSKARAREN JATORRIA, MITOLOGIA ETA FORUETARAINO, EUSKAL HERRIAREN HISTORIA ERREPASATZEN DUEN LEHENDABIZIKO IBILBIDE TURISTIKOA AURKEZTU DU

- 'Harri gorrien mezua'k Arrigorriagaren historia laburbiltzen du, Padurako Batailan hasi eta industrializazioan amaitzen den zortzi etapako ibilbide baten bitartez, euskal kulturaren alderdi desberdinak, hizkuntzaren jatorria eta Euskal Herriko mitologia ere errepasatuz, besteak beste.
- Padurako Bataila da ibilbidearen ardatz nagusia, gertakari honek, herriari izena emateaz gain, Bizkaiko Jaurerriaren sorrera markatu omen baitzuen 888. urtean. Bizkaitarrek Asturias eta Leongo erregeen subiranotasunetik askatu eta Jaurerria sortzeko egin zuten borroka kontatzen da.
- **IBILBIDEA** –doakoa- **LARUNBAT HONETAN, EKAINAK 30, INAUGURATUKO DA**, herritarrei nahiz bisitariei zabaldutako jai-ekitaldi batez (12:00etatik 14:00etara). Bertatutakoek ibilbidea egin ahal izango dute estreineko aldiz, mozorrotutako antzezleen kontaerak lagunduta. Horrez gain, 'Harri gorrien mezua' ren historia biltzen duen komiki bat banatuko da, eta etxeko txikieneztat puzgarriak, herri kirolak eta bestelako jarduerak antolatuko dira Ibon Koteronen musikak alaituta. Goi mailako ospakizuna ibilbide hau inauguratzeko.
- Arrigorriagako alkateak eta audio-gidetako aipamen historikoen eta komikiaren egileek aurkeztu dute 'Harri gorrien mezua'.

Bilbon, 2007ko ekainak 25.- Arrigorriagako Udalak, bertakoei nahiz bisitariei herriaren eta Euskal Herri osoaren historia hurbiltzea xede duen 'Harri gorrien mezua' doako ibilbide turistikoa aurkeztu du gaur goizean. Aisia eta turismo arloko eskaintza berri hau Alberto Ruiz de Azua, Arrigorriagako alkateak; Jose Luis Urrutia idazleak; eta ekimen hau bultzatu duen Lautso enpresako Miguel Atxotegik aurkeztu dute.

'Harri gorrien mezua' izeneko ibilbide turistiko honek zortzi etapa dituen kilometro eta erdiko ibilbidea zehaztu du herriko lekurik bereizgarrienetan zehar. Ibilbidearen ardatz nagusia Padurako Bataila da, herriari oraingo izena eman eta 888. urtean Bizkaiko Jaurerriaren sorrera markatu omen zuena.



Arrigorriaga Euskal Herriaren historiarekin lotzen duen gertakari honetatik abiatuta, ibilbideak denboran barna bidaiatzeko aukera ematen du, euskararen jatorrian eta euskal mitologian sakonduz eta Ameriketarako emigrazioa, industrializazioa, Foru Erregimena eta Karlistadak bezalako fenomenoen nondik norakoak arakatuz.

Ibilbidearen inaugurazioa larunbat honetan, ekainak 30, egingo da, 12.00etatik 14.00etara bitartean, eta bertan, antzezle batzuek, ibilbidean errecreatutako garai desberdinen antzera karakterizatuta, Arrigorriagako kultura eta historiaren alderdirik nabarmenenak eta Euskal Herriarekiko harremanak azalduko dizkiete bisitariei. Herritarrei eta bisitariei zabalduko jai-ekitaldi honetan, ibilbidea estreineko aldiz egiteko aukera eskaintzeaz gain, "Harri gorrien mezua"ren historia biltzen duen komiki bat banatu eta puzgarriak, herri kirolak eta bestelako jarduerak antolatuko dira txikienentzat; guzti-guztia Ibon Koteronen musikaz alaituta. Goi mailako ospakizuna ibilbide hau inauguratzeko eratu dena.

Antzezle horiek inaugurazio ekitaldian errezitatutako testuak, doako audio-gida batzuetan bilduta, "Harri gorrien mezua" ezagutzera inguratzen diren bisitarien eskuera jarriko dira uztailaren 1etik (igandea) ibilaldia amaitutzat joko den urriaren 31ra arte.

Audio-gidetan bildutako aipamen historikoak Jose Luis Urrutia idazleak landu eta ETBko 'Lau haizeetara' eta beste dokumental batzuetan ahotsa jarri duen Kepa Kuetto esatariak irakurri ditu, besteak beste. Horrez gain, audio-gidek ibilbide honetarako propio egindako jatorrizko musika eta efektu bereziak dituzte. Ibon Koteron, Joselu Angulo, Ruben Isasi eta Roberto Sanchez musikari ezagunak dira doinuen egileak. Audio-gida honekin batera, bisitariek komiki bat jasoko dute. Euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratutako komiki honek –irudiak Javi Kintara marrazkilariarenak dira eta testuak Jose Luis Urrutiarenak– 'Harri gorrien mezua' aurkitzen lagunduko die, joan den mendeko 30eko hamarkadaren hasieran ibilbide bera egin zuen kazetari poloniar baten ikuspegitik.

Gainera, ibilaldian parte hartzen dutenek herriko edozein tabernetan edaria eta pintxoa hartzeko eskubidea emango dien txartel bana jasoko dute ibilaldiaren hasieran. Ibilaldiaren lehen gunea Eskola Zaharrean dago, eta eraikinaren beheko aldean Informazio Gunea ezarri dute. Ekimen honi buruz informazio gehiago eskuratu nahi dutenek www.harrigorrienmezua.com webgunea bisita dezakete.



'HARRI GORRIEN MEZUA'

IBILALDIKO ETAPAK

'Harri gorrien mezua'k zortzi etapaz osatutako kilometro eta erdi inguruko ibilbidea du, bisitariak denbora-mugarik gabe egiteko modukoa. Ibilbidean zehar, zoru jarritako seinaleek zehaztuko dituzte geldialdiak, eta bisitatu beharreko gune bakoitzari buruzko azalpenak audio-gidetan entzun ahal izango dira.

1- ESKOLA ZAHARRA - EUSKARA, EUSKALDUNEN HIZKUNTZA. Lehendabiziko gune honetan, ibilaldiko bisitariak euskararen jatorria argitzeko mendez mende landu diren teoria desberdinak ezagutu ahal izango dituzte.

2- ANDRE MARIA MAGDALENA ELIZA – EUSKAL MITOLOGIA. Elizako arkupean, audio-gidak Euskal Herriko unibertso mitologikoko jainko eta jeinu nagusiak azalduko ditu. Azalpenak Erdi Aroko hilarri eta harrizko sarkofago baten ondoan entzun ahal izango dira.

3- PERGOLA - PADURAKO BATAILA. Bizkaitarrek, Jaun Zuriaren buruzagitzapean, askatasunaren aldeko borrokan jardun zuten 888. urtean asturleondarren aurka, Padurako zelaietan. Batzuen esanetan, garaipen hartatik sortu zen Bizkaiko Jaurerria, baina zernahi gerta ere, gertakaria Euskal Herriaren historiako sinbolorik errotuenetakoa bilakatu zen.

4- ANFITEATROA. - BATZAR NAGUSIAK. Anfiteatroan eserita, bisitariak bertatik bertara ezagutu ahal izango dute zertarako eta nola iragartzen ziren Erdi Aroan Batzar Nagusiak, Foru Erregimenaren oinarrietako bat.

5- MOIORDIN ZUBIA - KARLISTADAK. Euskal Herria izan zen XIX. mende osoan liberalak eta karlistak elkarren aurkako borrokan paratu zituzten hiru gerra zibilen eszenatoki nagusietako bat.

6- KULTUR ETXEA. - EKONOMIA. Etapa honetan, bisitariak Arriagako ekonomiaren oinarriak ezagutu ahal izango ditu, azken Karlistadaren ondoren hasi zen industrializaziotik gaurdaino.



7- BARUAKO PARKEA – AMERIKARAKO EMIGRAZIOA. Karlisten galerak ekarri zituen ondorio politiko eta ekonomikoen haritik, euskaldun askok Amerika aldera jo zuen fortuna bila. Hara joandako asko etxe aldera itzuli ziren indiano aberats bihurtuta, eta herriko arkitektura Amerikako exotismoaz aberastu zuten.

8- FRONTOI TXIKIA. - HERRI KIROLAK. Azken etapak frontoirako bidean jarriko ditu bisitariak, hori izan baita betidanik euskaldunen arteko topagunea. Bertan ezagutuko dute nola lehiaketa eta apustuaren aldeko zaletasunak gaur egun praktikatzen diren herri kirol modalitate desberdinak sortarazi zituen.

EGUNAK ETA ORDUTEGIAK:

‘Harri gorrien mezua’ ibilbidea larunbat honetatik, ekainak 30, urriaren 31ra arte egin ahal izango da, ondorengo egun eta ordutegietan:

-Asteazken, ostegun eta ostiraletan, 11:30etatik 14:00etara bitartean.

-Larunbat, igande eta jaiegunetan, 11:30etatik 14:00etara eta 17:00etatik eta 19:30etara bitartean.

-Astelehen eta astearteak taldeentzat erreserbatu dira.

Informazio gehiago:

www.harrigorrienmezua.com

PRENTSA KABINETEA:

L&V COMUNICACIÓN:

Itziar Villamandos

Kale Nagusia, 81-3. solairua

48011 BILBO

Tel.: 94 416 08 00 / 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com